



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a

Afitxatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

8. ERABAKIA: XERRENDA HERRIKO BIDEAREN

ZATI BATEN BESTELA SAILKATZEA ETA ALIENATZEA

(3.5 nomenklatura)

HONAKO ERABAKIAK 2022ko UZTAILAREN 5ean GAI BERARI BURUZ HARTU ZEN ERABAKIA DEUSEZTU ETA ORDEZTEN DU.

Auzapezak azaldu du, 2021eko urtarrilaren 8ko erabakia segituz, non herriko Xerrenda bideko zati bat lekuz aldatzeko eta lehengo eremua bestela sailkatu eta alienatzeko proposamena egin den, 2022ko maiatzaren 16ko ordenantza bidez izendatu duen Pierre Laffore inkesta komisarioari eskatu diola inkesta publiko baten egitea.

Txosteneko agiri guztien berri ukanik; inkesta denboran bildu adierazpen, ohar eta erreklamazioak eta inkesta-komisarioaren ondorioak irakurririk;

Legeak behartzen dituen izapide guztiak bete direla kontuan hartuz;

Proiektuaren kontrako erreklamaziorik egin ez dela kontuan hartuz;

Inkesta komisarioaren aldeko iritzia kontuan hartuz;

ARRAZOI GUZI HORIENGATIK,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU:

- Xerrenda bidearen zati baten lekuz aldatzea,
- lehengo eremuaren bestela sailkatzea eta alienatzea,
- guztia erantsia den katastro planaren arabera;
- 35 ca-ko azalera baten eskuratzea, zeina EARL ABATX laborantza enpresarena den B 441 lur sailetik erantzi beharko den, eremu berriaren osatzeko;
- EARL ABATX enpresari 85 ca-ko azalerako lehengo eremua uztea;
- EARL ABATXekiko operazioa 50 euroren truke egitea (1 euro/m² x 50 m²) EARL ABATXek ordaindua.

Auzapezari ESKATU DIO ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea, eta horretarako salmenta agiria egitea.

ZEHAZTU DU, notario edo administrazio gastuak eskaera egin duen enpresaren gain direla.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

Betegarria bilakatu den akta,

ORTZAIZEn, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.